

Ajuria Eneko Ituna Euskadiko eta Espainiako prentsan: Kazetak gatazkaren isla ezezik, xaxatzaile zuzenak ere gertatu dira

**Jose Inazio Armentia, Jose Caminos, Marian Gonzalez
Abrisketa, Gorka Jakobe Palazio eta Txema Ramirez
de la Piscina**

EHUKI (Euskal Herriko Unibertsitateko Kazetaritza Irakasleak) taldea

Laburpena:

Ondorengo lan honek EHUK diruz lagundutako ikerketa proiektu batean du oinarri. Bertan, Kazetaritza eta Ikus-entzunezko Komunikazioaren sailerako bost irakasle hartu dute parte, 1995 eta 1996 urteetan. Lan honek helburu garbia du: Euskadiko indar politiko gehientsuenek 1988an sinatu zuten Ajuria Eneko Itunak Euskadiko eta Espainiako prentsan izan duen eragina aztertzea. Artikulu hau ikerlan horren laburpena besterik ez da.

Horretarako, irakasle horiek 1.619 item aztertu dituzte, egunkari desberdinetako albiste, iritzi artikulu, editorial eta erreportaien artean. Aztertutako garaia oso zabala izan da, ia hamazazpi urte (1979-1996). Aipatutako itun horrek, beste faktore batzuren laguntzaz, ahalbideratu du prentsak ETAre indarkeria politikoa gaitzetzeko darabilen lengoia askoz homogenegoa eta trinkoagoa izatea. Euskal gizartearen baitan izan diren aldaketak anitzek ere (sozialak, ekonomikoak, politikoak eta kulturalak) eragina izan dute fenomeno horren artikulazioan. Osagai horiek guztiek -batuta eta elkarren artean lubrifikatuta- itunak izan duen oihartzun mediatikoa eta soziala handitu egin dute. Lan honen egileei guztiz beharrezkoa deritzote kazetagaritzaren alorrean antzeman dituzten hutsegite eta gabeziak zuzentzeari, iritzi publiko libre eta ongi informatua lortu nahi baldin badugu behintzat.

Abstract:

This article is based on a research work done thanks to a grant given by the University of the Basque Country. Five Lecturers that belong to the departments of Journalism and Audio-visual Communication and Advertising have been working on it during 1995 and 1996. The main aim of this research work is the influence that the Pact of Ajuria Enea, signed by most of the political groups in 1988, had on Press. This article is just a summary of that research work.

This research team has analyzed 1619 items, among which there are news published in different newspapers, opinion articles, editorials and reports. The period of time analyzed has been nearly 17 years (1979-1996). The pact mentioned above, helped by other factors, has made possible that the language used by the Press in order to condemn ETA's political violence has become more homogeneous and hard. The social, economic, politic and cultural changes that basque society has gone through have also had an influence on shaping the phenomenon. All these complements -united and lubricated among them- have allowed the social and mass-media echo to become bigger. The authors of this research work think that it is absolutely necessary to put right the mistakes and lacks that have been committed in the field of journalism in case we want to get a free and well informed public opinion.

-
- Sarrera
 - Helburuak, metodologia eta hipotesia
 - Egindako azterketak

- Masa hedabideen efektuak
- Hedabideak bortizkeria politikoaren aurrean
- *Item* paradigmaticoen azterketa
- Ondorioak
- Ikerlana egiteko erabili den bibliografia eta dokumentazioa

Sarrera

Masa-komunikabideen indarra, eragina edota boterea hainbat teoria, iritzi-korrante eta saiakeraren iturri oparoa izan da Kazetagitzairen historian zehar. Azken hamarkadotan dexente ugalduta dira mezubideen eragina aztertzen duten ikerlanak. Azterketa horiek guztiek efektuen aldakortasuna azpimarratu dute behin eta berriz; hau da, hainbat direla komunikabideen efektuak baldintzatzen eta mugatzen dituzten faktoreak (gizabanakoaren ezaugarriak, testuinguru soziala, unean uneko eta tokian tokiko ideologia nagusia,). Ikerlan horiek gero eta gehiago hartu dituzte gogoan, adibidez, komunikabide eta gainerako gizarte-erakundeen artean sortzen diren elkarrekiko harreman eta eraginak, gizakien inguru kognitiboa edota norberaren ingurune kulturala bezalako faktoreak.

Mauro Wolf italiarraren iritziak (1994: 16), gaur egun mass-mediaren inguruan egiten diren azterketek, inoiz baino gehiago, abiapuntu makrosozialak hartu behar dituzte gogoan. Oraindik ere *media studies*-etan metodo empirikoak jaun eta jabe badira ere, egun gizarte zientzietako ikertzaile gehienak bat datoz, edozein ikerketa egiterakoan, testuinguru sozialak duen garrantzia nabarmentzerakoan. Gaur egun, adibidez, inor gutxi ezbaian jartzen du mass-mediaren eredu sinbolikoak sortarazteko duten gaitasuna, kultur esparruetan bereziki. Gizarte modernoak gero eta atomizatuagoak dira, gero eta mailakatuagoak. Bertan, hedabideak giza-harremanen ordeko funtzionalak bihurtzen dira sarritan, orain gutxira arte betetzen ez zituzten espazioak osatuz.

Euskal Herriko komunikabideek euskal gatazkaren errepresentazioan egunero esku hartzen dute. Paradoxikoa bada ere, orain arte ez da horren inguruan azterketa handirik egin. Ustekizun, usteoker eta itxurikeria asko bildu da gatazka horren inguruan. Mataza ilun eta katramilatu horretan argi-izpi xehea ipintzea izan da gure helburua, ikerketa lan hau egin dugun guztion asmo apala, hain zuzen ere.

Ikerketaren helburu nagusia Ajuria Eneko Ituna (AEI) bera izan da, batik bat hitzarmen horrek Euskadiko eta Espainiako izan duen eragina. Laster hamar urte beteko dira berori sinatu zenetik (1988). Aditu eta analista guztien iritziak, gertakizun horrek euskal politikagintza orabidea markatu du. Beraien esanetan, Ituna aurreko eta osteko garaia bereiztu behar dira euskal politikagintza. *Euskadi ezberdina izango da hemendik aurrera*, esan zuen Ardanza lehendakariak hitzarmen horren balorazioa egiterakoan.

Esku artean duzun ikerketa aurrera eraman ahal izateko 1.619 item informatibo ezberdin aztertu ditugu³, genero guztietakoak gainera: albisteak, iritzi artikulua zein editorialak.

Helburuak, metodologia eta hipotesia

Euskal prentsa irizpide eta portaera politikoak. Horrela zuen izena gure ikerketa proiektuak. Eta horixe saiatu gara egiten, gure azterketa esparru zehatz baten inguruan kokatuz: Ajuria Eneko Itunaren (AEI) bueltan, hain zuzen ere.

Hauek izan dira, labur azalduta, gure helburuak:

- Zenbait gertaera paradigmaticoren aurrean, Hego Euskal Herriko eta Espainiako kazetek erakutsi dituzten irizpide eta portaera politikoak aztertzea, bertan AEIren eraginik somatzen ote den ala ez ikertuz.
- Jose Antonio Ardanza lehendakariak bere mezuetan lantzen duen agenda tematikoan, AEI eraginik izan ote duen ala ez aztertzea.
- EAEko zenbait kazetari kualifikatuk -Emilio Alfaro (*El País*), Mariano Ferrer (*Herri Irratia*) eta Jabier Salutegi (*Egin*)- AEIren inguruan egiten duten balantzea ezagutzea.

Jomuga horiek aurrera eramateko, ikerlan honetan aritu garen irakasleok metodologia zehatza eraman dugu aurrera. Hartara teknika kuantitatibo, baina batik bat, kualitatiboak erabili ditugu:

- teknika kuantitatiboak. Aztergai den unibertsoari edota berorren lagin errepresentagarri bati aplikatu zaizkion test moduko galdetegiak.

- teknika kualitatiboak. Aztergai diren gai edo pertsonen aplikatuak, inkesta kualitatiboak, elkarrizketa sakonak eta eztabaida taldeak.

Behaketa horietatik lortutako emaitzen irakurketa egin dugu azkenik, bi modutara gainera:

- sinkronikoki, momentuko errealitatearen argazki modura, datuak, beti ere erabilera-eremu edo sektore baten adierazle bezala ulertuz, eta

- diakronikoki, garai desberdinetako datuen arteko erkaketa eta bilakaera aztertuz, konparatzen diren aldagaiak homogeneoak direla ziurtatuz.

1979 eta 1996 izan dira ikerlanaren abiapuntu eta helmugarako hautatu ditugun datak. Lehenengoan, EAERako Autonomia Estatutua onartu zelako. Bigarrena, berriz, AEIren krisia markatu zuelako. Hamazazpi urte (bederatzi hitzarmena sinatu aurretik eta zortzi sinatu ondoren) aldarte zabala eta egokia da zenbait ondorio behar den zehaztasunaz atera ahal izateko.

Ikerlan honekin egiaztatu nahi dugun hipotesia ondorengo hau duzue: egon badago *kausa-ondorioa* harremana AEI eta komunikabide gehienek ETA eta ENAMen fenomenoari ematen dioten tratamendu informatiboaren artean. Gure ustez, harreman hori ez litzateke beti eta, kasu guztietan, modu berean azalduko, bitarte zabal horretan (1979-96) hainbat izan baitira eztabaida hori mugatuko zuketzen fenomenoak eta faktoreak.

Egindako azterketak

Komunikabideen irizpide eta portaera politikoak aztertzeko (lehen helburua) 1979-96 bitartean albistegai izan diren sei item nagusi aukeratu genituen. Guztiek zuten zerikusirik -zuzenki ala zeharka- indarkeria politikoarekin. Hauek izan ziren itemak eta bakoitzari egokitu zitzaion azterketa mota:

-Bi enpresariren bahiketak (ETAk egindakoak, biak): Saturnino Orbegozorena, 1982an eta Julio Iglesias Zamorarena, 1994ean. Aztergaiak bahiketa horiek irauten zuten egunetan Hego Euskal Herriko zein Espainiako egunkari garrantzitsuenetan agertu ziren albisteak izan ziren. Azterketa 784 gertaera informatiboz (albisteak, editorialak, iritzi artikulak eta gutunak) osatutako lagina baten inguruan gauzatu zen.

-Sei ETAkide eta beste hainbeste goardia zibilen hilketak. Hemen ere azterketa bitan bereiztu zen: 1988 baino lehen eta ondoren (hiru eta hiru, hurrenez hurren). Aztergaiak Hego Euskal Herri zein Espainiako egunkari garrantzitsuenetan agertu ziren albisteak izan ziren. Ikerketa 72 albitez osatutako lagina baten inguruan gauzatu zen.

-Ertzaintzaren irudia 1988 baino lehen eta ostean. Polizia hori 1982an sortu zen. Asko interesatzen zitzaigun komunikabide desberdinek eman dioten tratamendua, eta, batik bat, ea trataera hori berdina izan ote den Ituna sinatu aurretik eta ostean. Kasu horretan ere aztergaiak Hego Euskal Herriko zein Espainiako egunkari garrantzitsuenetan gai honekin lotuta azaldu ziren albisteak izan dira. Lagina 276 albistek eta iritzi artikuluk osatu zuten.

-Euskal presoak eta beraien agerrera komunikabideetan (AEI baino lehen eta ondoren). Aztergaia berdina izan zen. Lagina 55 albistek osatu zuten.

-ENAMen (Euskal Nazio Askapanerako Mugimendua) irudia AEI sinatu baino lehen eta ondoren. Aztergaia berbera eta lagina 52 albistek osatu zuten.

-Negoziazio politikoaren tratamendua; hau da, bitarte horretan ETA eta Gobernu espainiarraren artean egon diren hartuemanak, kontaktuak, elkarrizketak edo negoziaketak nola azaldu diren Euskadiko eta Espainiako prentsan (AEI baino lehen eta ondoren). Aztergaia berbera izan zen. Kasu horretan lagina 260 albistek eta iritzi artikuluk osatu zuten.

Horrezaz gainera, erabat beharrezkoa ikusi dugu iritzi sortzaile diren zenbait kazetari ezagunen jarraipena egitea (120 item guztira). Horretarako, hainbat egunkaritarako editorialak, iruzkinak eta iritzi zutabeak arakatu ditugu.

Beraz, guztira aztertutako gertaera informatiboak 1619 izan dira, albisteak, editorialak, iritzi artikulak

eta kartak tarteko. Arakatutako medioak, ondorengo hauek izan dira: *El Correo español-El pueblo vasco*, *El Diario Vasco*, *Egin*, *Deia*, *El País*, *Abc*, *El Mundo*, *Diario 16* eta *Tiempo* aldizkaria. Posible izan den guztietan, azterketa sinkronikoa (unean unekoa) eta diakronikoa (AEI aurreko eta osteko erkaketak eginez) egin da.

Bigarren helburua garatzeko -Ardanzak bere mezuetan lantzen duen agenda tematikoa- lehendakariak 1985etik 1996ra bitartean plazaratutako mezuak aztertu ditugu. Ehundik gora ziren bitarte horretan Ardanzak foro publiko desberdinetan irakurritako diskurtsoak. Horietarik 20k osatu zuten gure lagina, gure ustez errepresentagarrienak zirelako. Azterketa ongi egin ahal izateko, saiatu gara, mezuen inguruan azaldu diren egoerak, testuinguruak, gaiak eta hartzailego potentzialak ahalik eta berdintsuenak izan zitezen; hau da, ituna sinatu aurretikakoak eta ondorengoak.

Hirugarren helburua aurrera eramateko -AEIren balantzea- hiru elkarrizketa sakon egin ditugu beste zenbait kazetari kualifikaturekin:

-Emilio Alfaro, une honetan *El País* egunkariko *País Vasco* edizioko erredaktore burua (elkarrizketatu genuenean *El Correo español-El pueblo vasco* kazetako iritzia saileko arduraduna zen).

-Mariano Ferrer, Donostiako *Herri Irratiako* kazetaria eta *El Mundo del País Vasco* egunkariko Kontseilu Editorialeko kidea.

-Jabier Salutregi, *Egin* egunkariko zuzendaria.

Ikerketa horietan jasotako emaitza guztiak eztabaida-taldeetan iruzkindu ditugu, jarraian, behar diren ondorioak atera ahal izateko. Guztira 20tik gora izan dira 1994ko abenduaz geroztik ikerlana amaitu bitartean (1996ko uztaila), partehartzaileok egin ditugun lan-bilerak.

Azterketak, behaketak eta elkarrizketak aurrera joan ahala, ikerlanaren alde teorikoa ere landu dugu. Hartara, indarkeria edo terrorismoaren tratamendua komunikabideetan, fenomeno bezala, landu eta teorizatu duten pentsalari, idazle eta kazetarien ekarpenetara hurbildu gara, beraien ikuspuntua edozein izanda ere. Iritzi alderaketa horretatik behar diren ondorioak ateratzea izan dugu asmo eta helburu. Horretarako, jasotako iritzi eta pentsakizunen espektroa ahal den zabalena izatea nahi genuen, gure xedea ikertutako eremura argi pitin bat ekartzea izan baita, eta ez norberak alde edo moldez izan zitzakeen aurriritziak bermatzea. Aldi berean oso lagungarri gertatu zaizkigu masa-komunikabideen ustezko efektuen inguruan zenbait pentsalari ezagunek (Mauro Wolf, Elisabeth Noelle-Neumann eta Noam Chomsky) plazaratu berri dituzten azken ekarpenak.

Hedabideek bortxazko ekintzei ematen dieten trataerak betidanik kezkatu ditu politikariak, baita Euskal Herrian ere. Esaterako, 1985eko martxoaren 14ean, Eusko Legebiltzarrak onartu zuen *Indarkeria eta terrorismoaren aurkako aldarrikapena* 4 deitu zen adierazpenean garbiro agertu zen kezka hori. Hona hemen, testu horren 8. artikulua:

Halaber, Gobernuak eusko zein espainiar komunikabideei zera eskatu nahi die: gogoeta egin dezatela beraiek bortxazko ekintzei ematen dieten trataera informatiboari buruz. Esan gabe doa, gure asmoa ez dela -inola ere- adierazpen askatasuna murriztea, baizik eta eztabaida hori norberak egin lezakeen hausnarketa barruan kokatzea. Besterik ez.

Ajuria Eneko Itunaren baitan ere topatu dugu antzeko kezkarik, 14. artikuluan, alegia:

(...) mezubideetan dihardutenei [dei] egiten diegu, (...) gizartearen jokabideetan duten zalantzarik gabeko eraginagatik, gure gizartea bakeratzeko bidean lan handia egin behar dutelako.

Masa hedabideen efektuak

Mauro Wolf-ek berak dioen bezala (1994: 128), ezin da identifikatu epe jakin batean eta helburu zehatz batekin eratzen den kanpaina mediatico batean ager daitekeen kausa/ondorioa harremana, luzaroan eta mezubide desberdinetan ager daitezkeen efektuekin, egoera biak arras desberdinak baitira, bai denbora aldetik, baita ere kausa/ondorioa harremanari dagokionez.

Mass-mediaren efektuak luzaroan aztertzea helburu duten ikerketetan (beste inora jo gabe, esku artean duzun ikerlana), bestelako harremanak aintzat hartu behar dira, kausa/ondorioa eskema konduktista

hankamotz gertatzen baita normalean. Kasu horietan azaltzen diren harremanak linealak baino gehiago zirkularrak izaten dira normalean, beraien artean koerlazio ugari duten aldagaiak direlako. Fenomeno sozialen azterketa sakona egiten denean, hau da, gizarte-jarduera baten zergatiak arakutzen direnean, normalean ez da kausa bat bakarrik agertzen, jatorri desberdinak dituzten arrazoiak baizik.

Gizarte zientziak eskatzen diguten zehaztasuna dela medio, guztiz beharrezkoa da, aldagai interpretatibo ugari kontuan hartzea, baita ere beraien arteko interdependentzia-harremanak gertutik behatzea. P. Lazarsfeld-ek berak aurreratu zuen legez, *mass-mediak, aldi berean, produktuak eta faktoreak dira*. Hau da, aldagaiak eta emaitzak, eten gabe harremanetan dauden elementuak.

Interdependetzia-harreman hori argiro agertu zaigu eskuartean duzun ikerketa garatzerakoan. Mezubideetan egertu diren zenbait portaera ulertu ahal izateko, AEI ez da arrazoibide bakarrik eta autonomoa izan. Bestelako faktore, jarduera eta aldagai makrosozialekin egin dugu topo; hala nola, euskal gatazkaren beraren bilakaera eta berorrek herritar askorengan sortu duen etsipena, aztertutako epe zabal horretan (1979-1996) mundu osoan eta, euskal gizartean, azaldu eta mamitu diren aldaketak, mass-medieta nagusitu diren joera merkantilistak, etab.

Baina, egin diezaiogun geure buruari ondorengo galdera hau: nork gidatzen ditu herritarren erabakiak, politikak ala komunikazioak? Arthur Schlesinger-en ustez (M. Wolf, 1994: 138), lehenengoa -politika- da bigarrenaren abiarazle (komunikazioa). Adibidez, bere iritziz mass-mediaren erabilera maisu izan zen Ronald Reagan aktorea, berdin berdin hautatuko zuketuen EE.BB. etako presidente, dohai hori ere izan ez balu, kasu horretan eragile zuzena beste elementu bat izan baitzen: 70ko hamarkadaren amaieran EE.BB. etan hedatu zen pentsakera kontserbadorea, hain zuzen ere.

Dena dela, hedabideek ere Reagan-en hautaketa bera erraztu zutela pentsa daiteke, beste gauza batzuen artean hautagaiaren mezua ongi asko egokitu baitzen mezubideek darabilzkiten mimetismo eta ohikeria profesioaletara. Beraz, halako azterketetan nabaria da mass-mediak fenomeno eta portaera sozialen ko-protagonistak direla, beste hainbat aldagairekin batera, jakina.

Mass-mediaren efektuak aztertzen dituzten teoriko gehienek *powerful media* deritzan teoriaren itzulera aldarrikatu dute. Baina aldi berean, ezin da inolaz ere ukatu auzi horrek duen konplexotasuna. Mezubideen eraginpean luzaroan egon ondoren, komunikabideek herritarrengan sortaraz ditzaketen ondorioak aztertzeko, lehenik ondorengo hau hartu behar dugu gogoan: orain gutxira arte nagusi ziren ikuspuntu mediazentrikoak alde batera utzi, eta eragin horiek gizabanakoengan -indibidualki- zeintzuk izan daitezkeen sakonki aztertu beharra dagoela. Horixe izan da gure helburu nagusia ikerlan hau egiterakoan.

Garbi gera bedi, beraz, ikerketa proiektu honen helburu nagusia ez dela AEI-k mass-medieta izan duen isla ikaragarria "demostratzea", baizik eta testu horrek -beste fenomeno sozial eta aldagai makrosozialekin batera- mezubideetan, eta herritarrengan ere jakina, izan duen eragina "argitzea".

Elisabeth Noelle Neumann da zalantzarik gabe, *powerful media* teoriaren itzulera ongien teorizatu duen komunikologoetako bat. Bere iritziz, mediaren efektuak aztertzerakoan, bi dira aintzat hartu beharreko faktoreak: batetik, hedabideek dituzten eragin metagarriak eta bestetik, beraiek duten inpaktu ahalmena. Honela laburbildu du berak eztabaida hori (E. Noelle Neumann, 1980: 160):

etengabe jausten den ur tantak harria higatu egiten du. (...) Mass-mediaren efektuak sarritan oharkabe igarotzen dira. Gizakiak ez dira gauza beraien inguruan gertatu denaz jabetzeko. Nahastu egiten dituzte beraien pertzepzioak eta hedabideen bitartez jasotako filtrazioak, beren barruan banaezina den unitatea osatu arte; eta gainera hori guztia beren pentsakera eta esperientzia pertsonalen ondorioa dela sinisten dute askotan.

Hedabideak bortizkeria politikoren aurrean

Mass-mediak oso gutxitan dira benetan neutralak. *Terrorismo* deitura erabiltzen dute desordenu iturri guztiak izendatzeko, bortizkeriaren arrazoi soziopolitikoaren analisia alboratuz, eta terminuari berari gaiztakeria maltzur nabaria atxikituz.

Ez da inolaz ere makala *terrorismoa* terminuaren inguruan dagoen eztabaida. Nazio Batuen Erakundeak (NBE) berak, adibidez, arazo ugari ditu *terrorismo* terminuarekin. Uneon, erakunde horrek hitz hori bere gizarte arloko ikerguneen deitura ofizialetatik kanpo utzi du (Miquel Rodrigo, 1991: 17),

hainbesterainokoak baitira terminu horren inguruan sortu diren desadostasunak eta interpretazio kontrajarriak.

Irudi du jarrera eta terminologia batzuk medioetan oso errotuta daudela. 1989an ordea, Aljer-ko negoziaketek iraun zuten bitartean, zenbait mediok aparteko erraztasuna erakutsi zuten urteetan erabilitako terminologia bertan behera uzteko edota samurtzeko. Aste bakar batzuk nahikoak izan ziren ETA *banda terrorista* izatek *erakundea* izatera pasatzeko.

Horregatik, J.D. Halloran-ek dioten modura (1970: 866), *ez dago, eta ez dirudi egongo denik ere, indarkeriaren inguruan ontzat eman daitekeen definiziorik, ezinezkoa baita portaera bortitz guztien gaitsezpenean ikuspuntu guztiak bat etortzea.*

Alain Joxek⁶, Pariseko Gizarte Zientzien Eskolako ikasketa-buruak ere, terminu hori ez du gogoko. Bere ustez (1996: 20), *terrorismo hitzak duen esanahi afektiboagatik eta neurriz kanpoko hedaduragatik (...) faktore politikoa estaltzeko eta elementu poliziakoa nabarmentzeko erreminta egokia da; desordenu iturri guztiak izendatzeko, hitz horrek indarkeriaren analisi soziopolitiko gutxietsi eta pertzepzio makurrak barneratzeko balio du.* Horregatik, gerra ekintzak izan gabe baina helburu politikoez egiten diren ekintza armatuei, *bortizkeria politikoa* esaten die berak. Guk, geuk ere, halaxe erabaki dugu.

Biolentzia politikoak eragindako hilketak zenbait eratarata trata daitezke hedabideetako albistegietatik. Aldakiak asko izan ahal diren arren, nagusiki hiru dira, hein batean zein bestean, hedabideen jokamoldeak herritarren gogoak iraultzen dituzten ekintza bortitzen berri eman behar dutenean:

a) Ikus-entzunezko sistemak eta prentsak darabiltzaten bitartekoak zuzenki erabiliz ikusle/entzuleengan hunkigarritasun handia sortzeko, giza lengoaiak artikulatua fermuki eta goraki ekintza biolentoen aurka zuzenduz.

b) Era neutroa erabiliz eta aseptikotasuna adieraziz, gertakari odoltsuen berri eman. Informazioaren objektibotasunaren alde eginez, ekintza biolento gertatu den toki fisikotik urrunduz-edo kazetariak informazioa emanen lukeen bezala.

c) Hedabideek eskaintzen dituzten ahalbideak baliatuz, atentatuen izaera ezkorra agerian ipintzeko, nolabaiteko gerra-baliagarritasuna dela-eta, hobetsi eginez.

Hiru jarrera horiek gizartean berean ere islaturik daude eta, alde edo moldez, euskal hiritarrak noizbait horietariko batekiko atxikimendua sentitu du.

Item paradigmaticoen azterketa

Item paradigmaticoen azterketa bide eman digu AEIk prentsan izan duen eragin zuzena egiaztatzeko. Enpresarien bahiketari dagokionez, esaterako, aipatutako kazetek jarrera desberdina erakutsi zuten 1982an Saturnino Orbegozoren bahiketa gauzatu zenean eta, 1994ean, Julio Iglesias Zamorarena izan zenean. *El País* egunkariak, adibidez, baztertu zuen garai batean erabili zuten terminologia (*los "polimilis", dos jóvenes armados*), beste terminu batzuek baliatzeko (*los terroristas*). Antzeko portaera izan zuten beste medio guztiek, *Egin* izan ezik.

ETAkide eta goardia zibilen hilketen errepresentazio mediatikoa aztertzea argigarria gertatu zaigu, bertan ongi asko azaldu baitira kazeta batzuen eta besteen joera ideologikoak. Ituna sinatu ostean ETaren kontrako diskurtsoa gogortu da ia kazeta guztietan, garai bateko *"ustezko militanteak"* *"terroristak"* bihurtu baitira. Zenbait detaileez ohartzea interesgarria da oso. Adibidez, goardia zibilen bat atentatuz hiltzen den bakoitzean, ETari egotzi zaio ia automatokoki kazeta gehienetan. ETAkideren bat enfrentamendu armatuen ondorioz hilez gero, berriz, disparoen egiletzaz abstrakzioa egiten da sarritan: *Una joven muerta y nueve detenidos* (Deia, 87-VII-24); *Un etarra muere de un disparo cuando huía de la Policía* (1990-IX-19).

Euskal presoek trataera informatiboari dagokionez, ondorengo hau esan daiteke: kazeta guztiek *-Egin* izan ezik- garrantzi handiagoa eman dietela euskal presoek artean leudekeen desadostasunei kolektiboak berak jasaten dituen bizi-baldintza gogorrei baino (*80 presos de ETA plantean dejar la lucha armada, pero temen ser asesinados*, El País, 1993-XII-24; *Presos de ETA critican duramente a HB y defienden el diálogo urgente con el Gobierno*, El Mundo 1992-V-21; *Presos de ETA admiten que la reinserción pone en auténtico peligro de descomposición al colectivo*, El Mundo 1994-VIII-7).

Bestetik, ENAMeko buruzagiek ez dute, ez, oso prentsa onik. Egunkari gehienetan, ENAMen irudia elementu negatiboekin batera azaldu ohi da: *biolentzia, ortodoxia, makurkeria, zurruntasuna, itxikeria*. AEI sinatu ondorengo urteotan, kontrako jarrera hori homogeneoago eta zorrotzagoa da. Negoziateta politikoari dagokionez, 1988az gerotik, egunkari gehienek (Egin izan ezik) daukaten jarrera oso argia da: *ETAk ez du negoziatzeko borondaterik; konponbide bakarra AEIren baitan dago*. Maila horretan, garbi dago, egunkari gehienek bere egin dutela testu horrek dioena biolentziaren amaiera elkarrizketatuari buruz (jokamolde hori ez da kazeta guztietan agertu).

Iritzi sortzaile diren kazetariak, gai horren inguruan, plazaratu dituzten aburuak aztertu ondoren, zera egiaztatu daiteke: iritzi emale gehienak bat etorri direla Itunaren filosofiarekin, modu batera edo bestera, sutukiro kasu batzuetan, epelkiro besteetan. Hala ere, iritzi sortzaile horiek gutxitan, oso gutxitan, benetan gauza izan dira gertaerak aurreikusteko, kasu gehienetan gertaeren atzetik ibili baitira.

Jose Antonio Ardanazaren mezuetan bortizkeriaren gaia askotan agertu ohi da. Agertu den bakoitzean AEIren aipamena ezinbestekoa gertatu da. Aipamen zuzena izan da kasu batzuetan, zeharkakoa besteetan. Dena den, Itun horren filosofia nonahi agertu da bere mezu, idazki eta testuetan.

Jabier Salutregi, Mariano Ferrer eta Emilio Alfarori egindako elkarrizketak ere interesgarri oso gertatu dira. Bertan, nabari gelditu da euskal kazetarien artean dagoen iritzi-aniztasuna. Hirurak bat datoz AEI azken urteotan ezinbesteko erreferentzia bilakatu dela esatean. Aitzitik, kazetari horien iritziak ez datoz bat euskal herritarrek testu horren filosofiarekin bat egin ote duen ala ez eztabaidatzerakoan, auzi horretan norberaren pertzeptzioak nahikoa desberdinak baitira. Itunarekiko abururik kritikoena Jabier Salutregik dauka. Mariano Ferrer-ek, berriz, alde positiboak eta negatiboak bereizten ditu. Emilio Alfarok, aldiz, euskal gizarteak testu horrekin bat egin duela uste du.

Euskal kazetarien kolektiboaren iritzi nagusia zein den ez dakigu. Ikerlan honen helburua apalagoa zen. Pluraltasun handia zegoela susmatzen genuen. Elkarrizketok bide eman digute susmatzen genuena egiaztatzeko.

Jabier Salutregik egin duen beste aitortpen bat ohargarria da gure ustez. *Kazetariok ez dugu enfrentamendua indargabetez gogo sendorik*, esan digu. Esaldiak berak ezerk baino hobeto islatzen du egun bizi dugun polarizazio informatiboa.

Mariano Ferrer-ek esandakotik ideia hau azpimarratuko genuke: *Ituna kritikatzeko adorea behar da; egiten baldin baduzu oso bakarrik gelditzen baitzara*. Hitzok euskal kazetarien artean aztoramendua sortarazten duen bakarria ETA ez dela argi erakusten dute.

Azkenik, bereziki deigarria iruditu zaigu Emilio Alfarok egin duen apunte hau: *Itunak lengoia sinplifikatu egin du. El Pais* eko kazetariak segidan ondorengo hau gaineratu du: *jadunik, desagertu egin da neurri politzialen eta politikoen arteko kontrolatasun ergel hura*. AEIk kazetaritza-lengoia izan duen eragina nabarmena izan da. Ez dago dudarik.

Ondorioak

Ondorioak zehazterakoan, hauxe litzateke lehendabizikoena: Ajuria Eneko Ituna izenaz ezagutzen den hitzarmenak eragin ukalezina izan du azken urteotan euskal zein espainiar prentsan eta, oro har, euskal gizartean ere. Aztertutako kazeta gehienek, gainera, modu batera edo bestera, bat egin dute hitzarmen horretan agertzen letra eta filosofiarekin.

Prentsa portaerari dagokionez, garbi esan behar da aztertu ditugun egunkariak euskal gatazkak azkenaldion bizi duen polarizazio eta tentsionamenduaren isla zuzena izan direla. Ez hori bakarrik. Kazeta horiek arazo handiegirik gabe egokitu dira egoera horretara. Distentsioaren bidea landu ordez nahiago izan dute nork bere bezeriari eusten jarraitzea, norberaren merkatu-kuota era horretan ziurtatuz. Are gehiago, zenbait egunkari polarizazioa desaktibatu beharrean enfrentamendua xaxatzen saiatu direla dirudi, alde bakar batek nozitzen duen sufrimendua neurritz kanpo erabiliz⁷, lengoia politikoa hutsalduz⁸, enfrentamenduaren parametroak desitxuratuz⁹, estereotipoak behin eta berriz errepikatuz¹⁰ eta estigmatizazio mediatikoak egunero ahalbideratuz¹¹.

Dena den, AEIk prentsan izan duen eragina ezin da aztertu azken hogeitun urteotan euskal gizartearen baitan nagusitu diren fenomeno sozial, kultural eta ideologiko berriak aintzat hartu gabe. ENAMen kontra

betidanik izan diren sektoreek helduleku ezinhobea izan dute testu horretan, berari esker beraien mezua askoz homogeenagoa eta trinkoagoa egin baita. Hauxe izango litzateke, gure ustez, ikerlan honetatik atera litekeen konklusio garrantzitsuenetako bat.

Beraz, euskal kazetagitza bete-betean sarturik dago polarizazio edo aztoramendu informatiboaren dinamikan, batzuetan fenomeno horren isla izanik, eta, besteetan, berorren eragile edo xaxatzaile izanik¹². Herri honek bidezko bakebidea lortu nahi badu, bere mezubideen funtzioez gehiago erreparatu beharko luke, bertan egozten diren zenbait irizpidez gogoeta egin, eta antzematen diren gabeziak lehenbaitlehen zuzentzeari ekin.

Euskal Herriaren bakegintza euskal gizarte osoari dagokion erantzunkizuna denez gero, Euskal Herriko eta Espainiako komunikabideek zein kazetariak auzi horretan duten zeregin garrantzitsuaz gogoeta zintzoa egin beharko lukete. Hedabideen funtzioa bakegintza erraztea da; baina, baita ere, bakekarle modura saiatzea. Euskal gizarteak gogotsu eskertuko die behintzat.

Ikerlana egiteko erabili den bibliografia eta dokumentazioa

Atutxa, Juan María (1993): *Gobierno, Parlamento y medios de comunicación en la lucha contra el terrorismo*. Almería: Complutense-ko Udako ikastaroak.

Atxaga, Mikel (1991): "Euskal kazetariaren arazoak" in Zenbaiten artean: *Euskal kazetarien jardunaldiak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

Ball-Rokeach, S. & De Fleur, M. (1976): "A dependency model of mass media effects" in *Communication research*, 11. bol. 3. zenbakian, (3.-21. orr).

Cantril, H. (1940): *The invasion from Mars. A study in the Psychology of panic*. Princeton: Princeton University Press.

Chomsky, Noam (1989): *La cultura del terrorismo*. Bartzelona: Ediciones B, S.A.

_____ (1995): *Mantener la chusma a raya*. Tafalla: Txalaparta.

EGIN, Euskadi 1977-1982 bosturtekaria, Hernani (Gipuzkoa), 1982.

EHUKI taldea (Jose Inazio Armentia, Jose Caminos, Marian Gonzalez Abrisketa, Gorka Jakobe Palazio eta Txema Ramirez de la Piscina) (1997): *Ajuria Eneko Itune mezubideetan: Bakerako bidea ala aztoramen iturria?*. Tafalla: Txalaparta (in press).

Halloran, J. (1970): *Demonstrations and communication: a case study*. Baltimore: Penguin.

Joxe, Alain (1996): "El terrorismo: un concepto en el que cabe todo", in *Le Monde diplomatique*, 6.zenb. (apirila).

Lazarsfeld, P.(1951): "Communication research and the social psychologist" in *Current trends in social psychology*. Pittsburgh: University of Pittsburgh.

_____ (1955): "Why is so little known about the effects of television on children and what can be done?" in *Public opinion Quarterly*, 19. zenb.

Mancini, P.(1988): *Come vincere le elezioni*. Bolonia: Il Mulino.

Merton, R.(1949): *Social theory and social structure*. New York: The Free press.

Noelle-Neumann, Elisabeth (1995): *La espiral del silencio. Opinión pública: nuestra piel social*. Bartzelona: Paidós.

Parisi, D.(1988): *La guerra dei mondi. Appunti sulla planetarizzazione*. Bolonia: Il Mulino.

Pasquino, G.(1988): *Istituzioni, partiti, lobbies*. Bari: Laterza.

Ramírez de la Piscina, Txema (1995): *Mezubideak eta gatazka politikoa Euskal Herrian: proposamen bat*. Tolosa: Elkarri.

Rodrigo, Miquel (1991): *Los medios de comunicación ante el terrorismo*. Barcelona: Icaria.

Sartori, G., "Videopolitica" in *Revista italiana di Scienza politica*, 2. zenb.

Soria, Carlos (ed.) (1987): *Prensa paz, violencia y terrorismo. La crisis de credibilidad de los informadores*. Iruñea: Eunsa.

Taller de Sociología, S.L.(1995): *El conflicto, la violencia y la paz en Euskal Herria*. Tolosa: Elkarri.

Wolf, Mauro (1994): *Los efectos sociales de los media*. Barcelona: Paidós.

Zallo, Ramón (1995): *Industrias y políticas culturales en España y País Vasco*. Leioa: EHU-UPV.

Gainerako dokumentazioa

OJD, EGM eta CIESen buletinak

Egunkariak

El Correo español-El pueblo vasco, Diario Vasco, Egin, Deia, El Mundo del País Vasco, Euskaldunon Egunkaria, El País, Abc, Diario 16

Aldizkariak

Elkarri, Elkarrikasi, Tiempo.

1 Xehetasun gehiago nahi duenak jo beza ondorengo liburu honetara: EHUKI taldea (1997): *Ajuria Eneko Ituna mezubideetan: Bakerako bidea ala aztoramen iturria?*. Tafalla: Txalaparta argitaletxea (in press). Those who want further information can read the following book: EHUKI taldea (1997): *Ajuria Eneko Ituna mezubideetan: Bakerako bidea ala aztoramen iturria?*. Tafalla: Txalaparta argitaletxea (in press).

2 Jose Antonio Ardanazaren adierazpen horiek 1988ko urtarrilaren 13an agertu ziren kazeta guztietan. Zortzi urte beranduago, berriz, ondorengo adierazpenok egin zituen (1995/VI/22): "Ajuria Eneko Mahaia arazoa konpontzeko gauza ez izateaz gainera, Mahaia bera arazo bihurtu da () batasun erreferentea izatetik, ezadostasun eta nahasmen iturria izatera igaro baita".

3 Gure eskerronik sentikorrena eta onespenik zintzoena agertu nahi diegu item informatibo horien guztien azterketa sistematikoa egiten hainbat ordu sartu duten EHUKo ondorengo doktoregai hauei: M^a Dolores Agirre Buruaga, Iñaki Lazkano Arrillaga, M^a Luisa Odriozola Odriozola eta Lierni Uribarren Gil-i. Beraien partaidetzarik gabe ezinezkoa zatekeen eskuartean duzuen lana. Hainbat izan dira doktoregai horiek -geuk emandako irizpideei jarraiki- hemerroteketan eman dituzten orduak eta izan dituzten buruhaustak. Egin duten lana benetan txukuna eta zuzena izan da.

4 Adierazpen hori Ajuria Eneko Itunaren aurrekaria izan zen.

5 Azkenengo hamarkadotan hedabideei buruz egin diren ikerketa gehienak ikuspuntu enpresarial batetik abiatu dira, kontsumoari lotutako datuak jasotzeko asmoz (audientzien neurketak). Baina ezer gutxi aztertu da, adibidez, programa batek herritarrengan sortarazten duen onespen edo arbuio mailari buruz, hartzailaren selektibitate mailari buruz, edota mass-media eta sistema sozialaren arteko harremanei buruz. Programa batek audientziaren %25k ikusi dutela esaten denean, teleikusle guztiak programa hori ikusten gustura egon direla esan nahi du?, bertan azaldu diren edukiak bere egiten dituztela suposatuta behar al da akaso?, edo, denbora "pasatzearen" konektatu duten lehendabiziko kanala izan da? Halaber, gerta daiteke programa bat norberak dituen balore nagusiak berbaiezatzeko mekanismo baliagarria izatea, nahiz eta bertan islatzen diren ideiak pertsona horrek dituen printzipioetatik oso urrun egon. Audientzia neurketek adierazten digute programa bat zenbat pertsonak ikusi duten. Ez, ordea, horren zergatia. Horixe da, ez bairik gabe, ikerketa enpiriko horiek duten hutsune handienetako bat.

6 Ikus. Le Monde diplomatique, 6. zenbakia, 20. orr. (gaztelarazko edizioa), 1996ko apirila.

7 Euskal gatazkaren inguruan sufrimendu asko metatu da, alde guztietatik, gainera. Prentsan, ordea, ETak praktikatzeko duen borroka armatuaren ondorioz mingarrienak agertu ohi dira, batik batik. Estatuak

praktikatzen duen indarkeriaren ondorioak, berriz, bigarren maila batean azaldu ohi dira normalean (agertzen baldin badira ere).

8 Horren adierazle hona hemen adibide xume hau: ETB 2an aritzen den kazetari batek Herri Batasuna izendatzeko la autodenominada izquierda abertzale adiera erabili zuen garai batean albistegietan. 1995eko maiatzean gertatu zen hori.

9 Gaur egun, euskal zein espainiar prentsa irakurrita, badirudi euskal auzia ez dela inondik ere Espainia eta Euskal Herriaren arteko kontua, baizik eta, soil soilik, euskal herritarren arteko auzia. Gure ustez, planteamendu hori okerra da, ukaezina baita euskal auziaren oinarrian subiranotasun arazoa dagoela eta ez besterik. Gainera, 1978ko Espainiako Konstituzioaren arabera, subiranotasun horren bermale Espainiako armada da. Jakina, subiranotasun gabezia horri nola egin behar zaion aurre zehazterakoan sortu dira desadostasunak euskal herritarren artean. Baina, oinarri-oinarrian, subiranotasun falta dagoela ukaezina dela use dugu.

10 Aztertutako kazetetan sarritan agertu ohi dira honelako kontrakotasunak: gehiengo demokratikoa/gutxiengo biolentoa; mugimendu bakezalea/gazte erradikalak; bloke demokratikoa/biolentoak. Adiera horiek guztiak estereotipoak dira, sinpleegiak eta desegokiak gure ustez, portaera biolentoak alde guztietan azaldu baitira urte horietan guztietan.

11 Zenbait giza-talde estigmatizatuta daude. Beraien agerrera mediatikoa hainbat etiketapean gauzatu ohi da. Horren erakusle garbia izan daiteke kale borroka deitu den fenomenoaren inguruan eratu den errepresentazio mediatikoa. Zenbait kazetaren arabera, istilu horietan parte hartzen duten gazteek honako profila izango lukete: alkoholzaleak, burrunbazaleak, heziketa eskasekoak eta gizartean moldatu gabeko pertsonak. Errealitatea, berriz, gehienetan, oso bestelakoa da.

12 Gipuzkoako Audentziaren 2. sekzioak ere ohartarazi zuen fenomeno horretaz 1997ko martxoaren 12an emandako ebazpenean. Bertan, 1996an Elgoibarko San Bartolometan Ertzaintzak atxilotutako 14 urteko mutikoaren kausa aztertu zen. Polizia Autonomoak mutiko horri istiluetan parte hartu izana leporatu zion. Magistratuak, berriz, errugabea zela erabaki zuen. Gainera, garbi utzi zuen auzi horretan zenbait komunikabidek parez pareko epaiketa injustua egin zutela, mutikoaren erruduntasuna alde aurretik ziurtzat eman baitzuten. Gehiago ere esan zuen epaileak ebazpen horretan. Magistratuaren iritziz, mutil hori gizartean guztiz integratuta eta eredugarria izatetik (besteak beste, ikastolan orain arte lortu duen batez bestekoa oso ongizkoa izan baita), suemale arriskutsua izatera igaro da, eta hori mezubideek egindako lanari esker izan da.